



ARG.: TECNALIA

Tecnaliak suaren kontrako ate azkar bat garatu du

Tecnaliak azkar ireki eta ixten den eta suari eusteko gai den ate bat garatu du Europako Nofire proiektuaren barruan. Horrenbestez, bi erronka gainditu ditu; izan ere, orain arte ez da horrelakorik planteatu: irekitze-ixte azkarra izanik, suari eusten dion atea, alegia.

“Ohiko atea lonazkoak izaten dira; horregatik dira ate bizkorak. Gure erronka izan da panel arinekin abiadura hori lortzea eta suarekiko erresistentzia handiagoa izatea”, azaldu du Asier Maiztegik, Tecnaliako kideak.

Panel horiek egiteko aerogelak, arroka-zuntzak eta elementu zeramikoak erabili dituzte. Arinak dira, baina ez plastikoa edo goma bezainbeste. Horregatik, atea azkarra izaten jarraitu dezan, arraste-sistema berri bat diseinatu dute, besteak beste. Halaber, arrakastaz txertatu dituzte atearen funtzionamendu egokia bermatzen duten eta arrisku-egoerak saihesten dituzten segurtasun-gailuak. Eta ondorioztatu dute proiektu horretan ikertu diren sistema berri horiek guztiak ateen segurtasuna areagotzen dutela. ●


Bakterio erresistenteei aurre egiteko plana aurkeztu du Europako Batasunak

Europako Batasunak hamabi neurri proposatu ditu, bakterio-erresistentziari aurre egiteko plan baten barruan. Arduradunek adierazi dutenez, planaren xedea da erresistentzien hedapena eragozte eta bakterioen aurkako tratamendu berriak garatzea.

Hain zuzen ere, Europako Batasunean urtean 25 mila pertsona inguru hiltzen dira bakterio erresistenteek sortutako infekzioen ondorioz. Ekonomikoki ere kaltegarriak dira, urtean gutxi gorabehera 1.500 milioi euro galtzen baitira bakterio horiek sortutako osasun-gastuengatik eta produktibitatearen jaitsieragatik. Gainera, erresistentziei buruz egindako azken azterketak erakutsi du ospitaleetan pneumonia eta gemu-aparatuko infekzioak sortzen dituzten bakterioen erresistentziak areagotzen ari direla herrialde batzuetan.

Hori guztia aintzat hartuta, Europako Batasunak prestatutako planak neurri nagusi zehatzak proposatzen ditu, hala nola medikuntzan eta albaitaritzan mikroorganismoen aurkako botikak eta desinfektatzaileak modu egokian erabiltzen direla bermatzea; mikroorganismo patogenoen bidezko infekzioak prebenitzea; antibiotiko berriak edo ordeko tratamenduak garatzea; eta nazioarteko bazkideekin elkarlana estutzea bakterioekiko erresistentzien arriskuak gutxitzeko. Horrez gain, ikerketan sakondu beharra dagoela ere azpimarratu dute.

Planaren egileen arabera, “eraginkorra izan dadin” ezinbestekoa izango da Europako Batasuneko herrialde bakoitzak bere egitea neurri horiek eta elkarrekin aritzea. ●



Antibiotiko batzuek *Staphylococcus aureus* bakterioan duten eragina ikus daiteke irudian.

ARG.: CDC.